

## **Don Kixote Mantxako**

Miguel de Cervantes

*Itzultzailea: Pedro Maria Berrondo*

*Egokitzailea: Patxi Ezkiaga*

2005

Erein

Hainbat modu izan dira, dira eta izango dira Cervantesen eleberrira hurbiltzeko. Hala, asko eta asko izan dira lehenengo eleberrri modernotzat dugun honen itzulpenak ez ezik, baita edizioak eta are egokitzapenak ere. Esku artean duguna bertsio egokitu bat da. P.M. Berrondori zor diogu Kixoteren jatorrizko testu osoaren euskarazko itzulpen bakarra. Patxi Ezkiagari, berriz, Berrondoren bertsiotik antología bat antolatu eta euskara batura ekartzea; Jorge G. Arangureni liburu honen hitzaurre ez ohiko bezain interesgarria eta Xabier Egañari, berriz, liburuaren ilustrazioak -horien artean azaleko ilustrazioa nabarmenduko nuke, bikaina baita-.

Batura ekartze honek ez dio, alabaina, zahar-kutsurik kendu bertsio honi. Batura ekartzea ez baita grafia eta hitzen forma eguneratze soil bat. Alde horretatik, arrotz samar gerta dakieke irakurle gazteei, esango nuke, Berrondok erabilitako hainbat egitura, hitz-elkarketa eta aukera lexiko. Espezialistagoa beharko du, nik uste, irakurleak testu honekin gozatzeko. Alde horretatik, irakurle gazteei zuzendua bada edizio hau –ez dakit hala den-, horretan behintzat ez da asmatu. Aldiz, irakurle bereziagoentzat pentsatua izanez gero, egokiago litzateke antologiaren orde, Berrondoren bertsioa osorik ateratzea.

Ahalegina egin nahi duenari ez zaio, ordea, damutuko. Hitzaurreak, esan bezala, merezi du. Behin Don Kixoteren ibileretan barneraturik, abentura polit bezain interesgarri abiatzen gara, non pertsonaia guztien jokabideak zer-pentsatu asko ematen digun, gauzak, mundua eta, azken finean, bizia bera ikusteko moduari buruz. Balorazio asko egin dira bosgarren mendeurren honetan Kixoteren mezuari buruz. Denetarik irakur daiteke, gainera, baita astakeria galantik ere (izan baita Kixotea eta Miguel de Cervantes liberalismoarekin eta Bush-ekin lotu dituenik !) Nik ere neurea botako dut, bada, labur. Cervantesek Kixoteren bitartez mezu bat helarazten digu, nik uste, argi eta garbi: bizitzan, garrantzitsuena ez da jarritako helburuak lortzen diren ala ez, helburu horiek lortzen saiatze bera baizik.

Mikel Garmendia